

OPE
2007



2007ko
LEP

KODEA Lanpostua/k:

A-5051

GAZTERIAKO G.T.

1. ariketa. 2. proba

GALDERAK

Denbora, gehienez: 120 min.

EREDUA:

C

- Ez zabaldu esan arte.
- Proba bukatzean inprimaki hau zeurekin eraman dezakezu.
- Kontuan izan galdera bakoitzaren balioa, eman bazaio.
- Adi egon, identifikazio pertsonalerako txartela jaso diezazuten.
- Ez ahaztu ordezkagiria hartzea (irakurketa optikorako inprimakiaren beheko ezkerreko zatia).
- Adi egon, batera grapa ditzaten irakurketa optikorako orria, azaleko inprimakia eta zure erantzun-orriak.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Galdera	Balioa	Galderaren idazkuntza
1	3,00	Definitu “inpaktu ebaluazioa”. Adierazi emaitzen ebaluazioarekiko ezberdintasunak. Identifikatu zein teknika eta prozedura, eta zein iturri, erabili behar diren Gazte Planaren inpaktua aztertzeko.
2	1,00	Euskal gazteriari buruzko “Gazteriaren erretratuak” 2005-2006 estatistikak aintzat harturik, identifikatu zein diren euskal gazteentzat erkidego honetako arazo nagusiak garrantziaren arabera, eta zein ezberdintasun dauden iritzi horien eta 2003koen artean.
3	2,00	Ikuspegi soziologikotik, azaldu gazteek pertsona heldu bihurtzeko prozesuan egiten dituzten trantsizioak.
4	1,00	Zer dira gazteentzako baiezko politikak? Nola sortzen dira, zer planteatzen dute, zein dituzte ardatz egituratzaileak, eta zein motatako politikekin identifikatzen dira (nuklearrak edo periferikoak)?
5	1,00	Zer da <i>brainstorminga</i> ? Definizioa eta aplikatzeko orduan jarraitu beharreko arauak.
6	2,50	EAEko II. Gazte Plana (2002-2005) aintzat harturik, identifika itzazu planteatzen dituen esku-hartze sozio-instituzionalaren bi uneak, gazteen kolektiboan zein etapari dagozkion, horietako bakoitzeko esku-hartze lehentasunak eta zein neurritan gauzatzen diren.
7	1,50	Zer dira “zerbitzuen kartak”? Zer erabilgarritasun dute?
8	1	Definitu Gazteria Plan Integrala.
9	0,50	Zer dira ikerketa sozialerako praktika kualitatiboak? Zerrendatu gazte kolektiboari buruzko ikerketetan gehien erabiltzen diren hirurak. Zertan bereizten dira praktika kuantitatiboetatik?
10	0,50	Nola du izena Europar Batasunaren Gazteria programa berriak? Esparru kronologikoa eta hartzaileen adin-tartea.
11	1	Definitu “Gazteentzako Informazio Lekua”.
12	1,5	Zerrendatu Gazteria Zerbitzuaren 2007ko diru-laguntza deialdi publikoaren baitan diru-laguntza jaso dezaketen proiektu-motak, gazteekiko bitartekaritzaren eta gizartearen esparruko profesionalen proiektu eta zerbitzuei gagozkielarik. Zeini emango zenieke lehentasuna, horien artean?
13	2,5	Udalaren Gazte Planaren baitan, osasuna dela eta, egindako diagnostikoaren arabera, zein dira Gasteizko gazteen portaera mendetasun-sortzaileak, eta zein bilakaera ari dira izaten ohitura horiek?
14	1	Nola definitzen du EAEko Gazte Elkartegintzaren Liburu Zuria 2003 delakoak “elkarte” hitza?